

ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA

Leioako Udalak herriko neska gazte batek jasandako eraso dela-eta honako ADIERAZPENA egin du SEXU-ERASOEN AURREAN BERE GAITZESPEN IRMOA erakusteko.

Erakundearen eta Leioan bizi garen guztion beharra da emakumeen aurkako biolentziaren arbuioa adieraztea eta gizartearen gaitz hau errotik kentzeko neurriak hartzea, biktima eta bere familiari laguntza eta elkartasuna agertzeaz batera.

Hau dela-eta Udal honek:

ELKARTASUNA ADIERAZTEN DU: biktima eta bere familiarekin jasandako bortizkeriagatik eta jarrera irmoa agertzen du, arazo honek erakundearen eta gizartearen erantzun integratua eta koordinatua eskatzen duela agerian geratzen delarik.

Emakumeek pairatzen dituzten eraso guztiak S ALATU ETA ERABAT GAITZESTEN DITU, eta behar diren neurriak hartzeko borondatea agertzen du.

Bere eskumenen barruan eta indarrean dagoen legeria aplikatuz udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko KONPROMISOA ADIERAZTEN DU. Honen erakusgarri Bozeramaileen Batzordeak Erakundearen Adierazpen hau adostu eta onartu egin du.

Herritarrei DEI EGITEN DIE emakumeen aurkako bortizkeriaren aurrean gaitzespen jarrera hartzeko, ez onartzeko, honen aurrean isilik ez geratzeko eta honelako erasoaren aurrean antolatzen diren ekintzekin bat egiteko, halaber, eguneroko bizitzan emakume eta gizonen arteko berdintasun balioak erabiltzeko.